ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri aldizkaria • 101.alea. 2026ko iraila

LUÍS MUÑOZ "PIRU"

Herri mugimenduko kide historikoa



Imajinatzen duzu Zorrotza merkataritzarik gabe?

Baduzu eskaintzarik onena Zorrotzatik irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com

Bilbao

EUSKARAZ BIDEA EGINEZ

MATRIKULA ZAITEZ EUSKALTEGIETAN

ESKATU DIRULAGUNTZAK



TXULALAI

TXIKI FESTA



IRAILAK 26, larunbata

13:00etan, Azoka plazan

Antolatzaileak:

zorrotzako euskal txokoa

zorrozzako ad suzortzeko

Babeslea:

Bilbao

ZM
ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

101. alea. 2026ko iraila

www.zorrotzmorrotz.eus
zm@zorrotzmorrotz.eus
@ZorrotzMorrotz
@zorrotzmorrotz
@zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:
Ibai Barrios
Aiert Cobo
Ainara García
Eneko García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Oier Pando
Naroa Peña
Iratze Pérez

Laguntzaileak:
Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:
Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:
Alaitz Aldabaldetreku

Bilbao Udala Ayuntamiento
Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.
Edukiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira

sarrera

Lortutakoari eutsiz, Zorrotza hobetzen jarraitzeko

Irailarekin batera, ikasturte berria hasi da. Espero dugu oporretan ondo pasatu izana. Hori esanda, Auzo Mugimenduak ezarritako agendari jarraitzeko garaia da.

Asko da urte hauetan guztietan lortutakoa, baina egia da, era berean, asko dagoela oraindik gure auzoa hobetzeko lanean jarraitzeko. Horregatik, bizilagunei dei egin nahi diegu, berriro ere, auzoko arazoez ardura daitezen eta, ahal den neurrian, Zorrotza auzo hobea izan dadin ekarpenak egin eta parte har dezaten.

Nekez lortzen dira aurrerapausoak, bai. Baina ez dago adore falta edo frustraziorako tarterik. Historiak eta esperientziak erakutsi digute auzo hobea lortu dugula etengabeko lan serio eta arduratsuarekin. Memoria hauskorra da, eta askotan ez gara ohartzen komunitate gisa gure ingurunea maila guztietan hobetzeko egindako ahaleginaz eta lortutakoaz.

Horregatik, horrela jarraitu behar dugu. Erronka handiak dira, eta horrek borrokan jarraitzeko pizgarria izan behar du. Ziur egon Auzo Elkartetik ahalegin horretan jarraituko dugula.

Amaitzeko, gogoratu jaiak hastear ditugula. . Jai Batzordeak antolatutako jardueretan parte hartzera eta ondo pasatzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Animo eta ekin lanari! Zaindu zaitezte, zaindu gaitezen!

zorrotza auzo elkartea

Ford
Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

cafe txinbo
Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak
Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

Matrikula zabalik
2024-2025
ikasturtea
The aKdmy
Ingeles eta eskolako laguntza
666017195
the_aKdmy
Zorrotza Kastrexana errepidea, 7



BilbaoGarbiren instalazioak Untziola kalera lekualdatzearen kontra agertu da Auzo Elkartea

Auzo Elkarteak salatu duenez, Udalak Zorrozgoitibidea kalea berritzeko onartutako proiektua aldatu nahi du, eta BilbaoGarbi udal garbiketa-zerbitzuaren biltegirako, komunetarako eta aldageletarako modulu aurrefabrikatuak jarri nahi ditu Untziola kalean, Gaztetxerako sarreraren parean

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako Auzo Elkartea BilbaoGarbiren garbiketa-instalazioak Untziola kaleko zabalgunera, gaztetxerako sarreraren parera, eramatearen aurka agertu da. Elkartearen arabera, neurri horrek nabarmen aldatuko luke Barruti Kontseiluak onartutako proiektua.

Zorrozgoitibidean oinezkoentzako ibilbide seguru bat sortzeko jarduketa 2020-2023 aldirako Auzokide Planean sartu zen, eta azterketa teknikoaren eta auzotarren ekarpenen ondoren onetsi zen. Hala ere, ADIFekin, C-4 lineako bideekin, trenbide-pasagunearekin eta jabetza pribatuekin lotutako arazoek lanak faseka exekutatzera behartu dute.

Herri mugimenduak ziurtatu duenez, azken fasea, hasiera batean 2026ko uda baino lehen aurreikusita zegoena, berriro atzeratuko da, Eusko Jaurlaritzak eskatutako indusketa-plan bati lotutako administrazio-arrazoiengatik. Bitartean, Udalak Untziola kalean biltegi, komun eta aldageletarako modulu aurrefabrikatuak instalatzea aurreikusten du.

Nahiz eta herri-mugimenduak onartu kokapen hori behin-behinean erabili ahal izatea obrek irauten duten bitartean, baztertu egiten dute behin betikoa bihurtzea. Komunikatu batean azalduta, ohartarazten dute eremu hori oinezkoentzako gune finkatua dela, etxebizitzetatik eta ostalaritza-establezimenduetatik gertu dagoena, eta 2,5 metroko itxitura bat jarriko litzatekeela bertan.

Auzo Elkarteak EH Bilduren babesa jaso du gai honen inguruan. Alderdi subiranistak, prentsa ohar baten bidez, “auzoak adierazitako borondatea eta Barruti Kontseiluan hartutako erabakiak errespetatzeko” eskatu zion Udalari.



Zorrotza jai giroan berriro murgiltzeko prest

Aurten 40 urte bete dituen Gure Lurra elkarteak botako duen txupinazoarekin batera hasiera emango zaie jaiei. Guztira bederatzi egun izango dira, adin guztietako auzokide orok gozatzeko jarduerez beteta.

ZORROTZ MORROTZ | ARGAZKIA: AITOR MARÍN

Irailaren 26an hasiko dira 2026ko Zorrotzako jaiak, eta bederatzi egunez eta gauez festa giroa izango da nagusi auzoan. Aurtengo egitarauak askotariko proposamenak bilduko ditu: musika, antzerkia, kirola eta aisialdirako hainbat aukera. Izan ere, Jai Batzordeak adin eta gustu guztietara egokitutako egitaraua osatu nahi izan du aurten ere. Hala, gazteek zein umeek jarduera ugari izango dituzte aukeran, tartean kuadrillen lehiaketa, eta helduentzat ere ez dira proposamenak faltako. Gainera, laugarren urtez jarraian, 60 urtetik gorako pertsonei bereziki zuzendutako jarduerak egingo dira.

Musikari dagokionez, Azoka parkeko agertokira itzuliko dira Kresala, lehenengo ostiralean, eta Versus, azken larunbatean. Lehenengo larunbatean, berriz, Lehian erromeriaren txanda izango da. Bigarren ostiralean, Rosendo rock musikari madrildarraren omenezko bi tributo izango dira: *Rosendadas acústicas* eta *La Leñera tributo a Leño*.

Euskara sustatzeko ekintzak

Euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko ekintzek ere izango dute tokia egitarauan. Urteroko hitzordu handia bihurtu den lehenengo igandeko bertso saio handia babestuko du Zorrotzako Euskal Txokoak aurten ere. Irailaren 27an, eguerdiko 12:00etan, Oihana Iguaran, Aitor Etxebarriazarraga, Maddi Ane Txoperena eta Andoni Egaña bertsolariak arituko dira Azoka plazako kioskoan.

Bezperan, irailaren 26an, etxeko txikienek dantzan eta kantuan aritzeko aukera izango dute Euskal Txokoak babestutako Txulalai taldearen Txiki festa ikuskizunarekin, eguerdiko 13:00etatik aurrera. Bukatzeko, hau ere umeei zuzenduta, Patata Tropikala taldeak Ametsen mundua antzezlana taularatuko du urriaren 3an 18:00etan.

Jai-Alai kafetegia
Abaro estrata, 12
94 490 12 59

FARMAKOTEGIA
SUSANA URRITIKOETXEA
Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46

BiziFitness
CROSSCENTER
CROSS TRAINING
eta
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
guztiontzat
Zure zain gaude!
ZALBIDEA ESTRATA, 13
623106531



Udalak Txinbo parkea egokitzeko lanak esleitu ditu, Bilbon kontrolpean urez bete ahal izango den lehenengo parkea egiteko

ZORROTZ MORROTZ

Bilboko Udalak Txinbo parkeko paisaia egokitzeko eta birnaturalizatzeko obrak esleitu ditu Zorrotzako muturrean, Cadagua ibaiaren ondoan. 301.000 euroko aurrekontua duen jarduketak hiru hilabete iraungo du, eta irailetik azarora bitartean egingo da.

2.840 m²-ko eta 130 metro inguruko eremua berrantolatuko da, zurezko sei plataforma eta bankuak jarriz eta ibaiaren erriberara hurbiltzeko aukera emanez. Parkean urez bete daitekeen eremuaren zabalera handitu egingo du, espazio hori gainezkabide gisa baliatu ahal izateko eta ur-goraldietan Kadagua ibaiaren eta itsasadarraren emari-soberakinaren zati bat hartzeko.

Eremua birnaturalizatzeko, bertako zuhaixkak, erriberako landaredia eta bertoko zuhaitzak landatuko dira, biodibertsitatea eta erosotasun termikoa hobetzeko. Horrela, espazioa babesleku klimatiko bihurtu ahal izango da egun beroetan.

Markeliñe antzerki taldeak *'Artilusio'* eramango du Zorrotzako frontoira irailaren 29an

Emanaldiak *"Eszena Kalera"* udal programaren barruan dago

ZORROTZ MORROTZ

Kale-antzerkiak hitzordua izango du berriro Zorrotzan. Irailaren 29an, goizeko 11:00etan, Markeliñe konpainiak "Artilusio" ikuskizuna eskainiko du auzoan, Bilboko Udalaren "Eszena Kalera" programaren barruan. Emanaldiak, azken urteotan ohikoa den bezala, auzoko ikastetxeetako ikasleak bilduko ditu. Umeak eskolatik aterako dira frontoiko harmailak betetzeko eta antzezlana ikusteko.

Zorrotzakoa "Eszena Kalera" programaren azken-aurreko ekitaldia izango da. Irailean zehar, Bilboko hainbat auzotan 17 euskal konpainiak 32 emanaldi eskaini dituzte, askotariko diziplinak oinarri hartuta: zirkua, magia, musika, kale-antzerkia, clowna, dantza eta txotxongiloak, besteak beste.

Programazioak publiko guztiei zuzendutako ikuskizunak bildu ditu, euskaraz, gaztelaniaz, elebitan eta testurik gabeko formatuetan. Horrela, kaleko arteak auzotarren egunerokotasunera hurbiltzea eta adin desberdinetako publikoaren parte-hartzea sustatzea du xede.



Punta Zorrotzan trenbidea integratzeko azterlana lizitatzeko akordio instituzionala sinatu da, FEVE lurperatzeko lanak egiteke dauden bitartean

ZORROTZ MORROTZ

Garraio Ministerioak, Adifek eta Bilbao Ría 2000k protokolo bat sinatu zuten joan den ekainaren amaieran, trenbidea Zorrotzako lurmuturrean sartzeari buruzko bideragarritasun- eta errentagarritasun-azterlan bat enkargatzeko. Auzoko eremu hori hirigintzaren aldetik eraldatzeko aldez aurreko beharrezko urratsa da hau. Azterlana 420.000 euroan lizitatuko da, eta 12 hilabeteko epea izango du gauzatzeko. Ondoren, informazio-azterlanarekin eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketarekin aurrera egiteko aukera emango du.

Proiektuak 320.000 metro koadro garatzea aurreikusten du, bizitegi-erabilera eta erabilera ekonomiko berriekin. Jarduketa honek auzoaren kohesioa hobetzea ere aurreikusten du, eta baita trenbideek sortzen dituzten oztopoak murriztea eta itsasadarrarekiko harremana baliatzea ere. Juan Mari Aburto alkatearen hitzetan, “Bilboko hedapen-eremu berri honen hiri-eraldaketa abian da”.

Hala ere, Renferen trenbidea lurperatzeko urratsak ematen diren bitartean, FEVE trenbidea lurperatzeko lanek hasteke jarraitzen dute. Informazio-azterlana 2024an onartu bazen ere, eta obrek 55 milioi euroko balioa badute ere, oraindik ez dago hasiera-datarik, eraikuntza-proiektua idaztea eta onartzea falta baita.







"Euskara hizkuntza polita iruditzen zait. Adibidez, gustatuko litzaidake *Goazen* telesaila ulertzea"



ALISON ZÁRATE ÁLVAREZ

Jaiotokia: Perú
Noiztik hemen: 2012tik.
Adina: 25
Lanbidea: Erizaina.

11 urterekin Perutik Euskal Herrira etorri zen etorkizun hobe baten bila. Urteak igaro ondoren, Zorrotzan aurkitu du bere lekua: auzoko bizimodua eta gertutasuna gustuko ditu. Orain, euskaraz ikasten ari da hizkuntza oso polita iruditzen zaiolako.

TESTUA: NAROA PEÑA | **ARGAZKIAK:** AITOR MARÍN

Nolatan eta zergatik heldu zinen gurera, Zorrotzara?
11 urterekin etorri nintzen, nire gurasoek etorkizun hobea lortu nahi zutelako.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohitureta-ra moldatzea?
Egokitzapena ez zitzaidan gogorra egin, seguruenik, nahiko txiki etorri nintzelako.

Zure herrian zein lanbide zeneukan?
Ikasten ari nintzen, Lehen Hezkuntzako seigarren mailan nengoen. Hona etortzean seigarren maila errepikatu behar izan nuen bukatuta ez neukalako.

Oso gazte etorri zinen, baina gogoratzen duzu hango bizimodua? Zorrotzakoaren antzekoa dela esango zenuke?
Hemengo bizimodua errutinazkoagoa da. Perun guztia familiarragoa eta hurbilagoa dela esango nuke. Hemen jendea bere kasa doa eta, batzuetan, ez dute elkar agurtzen ezta atarian topatzen diren bizilagunak ere.

Zer da Zorrotzako gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?
Auzoan dagoen merkataritza eskaintza zabala eta dena gertu daukagula da gehien gustatzen zaidana. Bilboko erdigunearen ondoan dagoela ere bai, jakina. Eta gutxien gustatzen zaidana, batzuetan, gauetan sentitzen dudan segurtasun falta, zaintza gehiago egon beharko litzatekeela uste dut...

Zeren falta sumatzen duzu gehien?
Amaren, osaba-izeben eta lehengusuen falta dut batez ere. Hango bizimoduarena ere bai. Gazte etorri banintz ere, oroitzapen onak ditut bertan bizitakoaz.

Zure herrira askotan bueltatzen zara?
Bueltatu nintzen azken aldian 15 urte nituen. Nire guraso eta ahizparekin joan nintzen, baina orain dela denbora asko izan zen.



> *Auzoan dagoen merkataritza eskaintza zabala eta dena gertu daukagula da gehien gustatzen zaidana*

> *Perun guztia familiarragoa eta hurbilagoa dela esango nuke*

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?
Ba oso frenetikoa da: gimnasiora joaten naiz, gero euskaltegira eta gero lanera, eta horrela egunero astelehenetik ostiralera. Asteburuetan lagunekin irtetea gustatzen zait. Izugarri gustatzen zait hondartzara joatea eta ilunabarra ikustea izozki bat jaten dudan bitartean.

Euskaltegian klaseak hartzen dituzula aipatu duzu. Euskararekin zelan moldatzen zara?
Euskara hizkuntza polita iruditzen zait. Elkarrizketak menperatzera heldu nahi dut. Hitz egitea da gehien kostatzen zaidana. Adibidez, liburuak irakurtzen ditudanean dena ulertzen dut, baina elkarrizketak edota adibidez, Goazen! bezalako telesail bat ulertzera iritsi nahiko nuke.

Eta bukatzeko, Zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu ala Zorrotzan betiko geratzea erabakita duzu?
Egia esanez... ez dut itzultzeko batere asmorik... Oporretan baino ez. Hemen oso pozik nago, eta ikaragarri gustatzen zait daukadan bizimodua.

ZORROTZAKO EAJ PNV BATZOKIA EGI

ZORROTZA HERRIGINTZAN


eaj pnv

ZORROTZAKO BATZOKIA
Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



100. alea ospatzeko festa egin du Zorrotz Morrotzek

Irailaren 12an Zorrotz Morrotz eguna antolatu zen, aldizkaria ehun aleetara iritsi dela ospatzeko.





TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ | **ARGAZKIAK:** ZORROTZ MORROTZ

Egitarau zabala osatu zen, Euskal Txokoa, Kun-Kun eta Askabide auzoko elkarte euskaltzaleen babesarekin. Hamarnaka auzotar euskaltzale batu ziren festara, goizetik hasi eta iluntzera arte jardueraz josita egunean. Goiz-goizetik, Azoka Parkean "ZM: 100 ale, hamaika istorio" erakusketa jarrita egon zen, aldizkariaren ibilbidea eta bilakaera nagusiak azpimarratzen zituena. Egunari ekiteko, Gora kopak bikoteak haurrak zein helduak dantzan jarri zituen bere ikuskizunarekin. Eguerdian, berriz, TeleZorrozako gazteek euskal kantez blaitu zituzten auzoko kaleak, arratsaldera arte luzatu zen poteo martxosoan. Poteotik bazkaltzera zuzen-zuzenean joan ziren, eta indaba-jana gozoa egin zuten.

Egunaren bigarren erdian, berriz, freestyler erakustaldi paregabeaz gozatu genuen Zoroen Klubaren eskutik. Saim Mendi, Auzoko, Raperu, Blesz, Muxker eta Swaggerri raperoek ederki erakutsi zuten euren trebezia euskaraz inprobisatzen.

Eta festa biribiltzeko, auzoko bi musika-talderen kontzertu zirraragarriak. Batetik, Gatazka, publiko bereziki gaztea erakarri zuena. Bestetik, Lur Jota, melodia eta letra fin eta kutsakorrez jendea gauera arte lotuta eduki zuena.

Ehun ale ez dira berehalakoan osatzen, baina Zorrotz Morrotz eguna bizkorregi amaitu zelakoan gaude bat baino gehiago.









LUIS MUÑOZ "PIRU":
Herri-mugimenduko kide historikoa

"Auzoa baino, herria izatearen sentimendua ez genuke inoiz galdu behar"

16 edo 17 urterekin hasi zen Piru Zorrotza auzoaren aldeko mugimenduan, eta ordutik ez da konpromisotik aldendu. Auzo elkartean ez ezik, borroka sindikaletan, pentsionisten mugimenduan, ekologismoan eta beste hainbat esparrutan garaipenak zein porrotak ezagutu ditu. Auzoa eta herri mugimendua nola aldatu diren gertutik ezagutu du. Aldarrikapenaren, auzolanaren eta komunitatearen garrantzia azpimarratzen du. Izan ere, argi du hobetzeko zer edo zer egin behar dela.

TESTUA: AINARA GARCÍA | **ARGAZKIAK:** AITOR MARÍN

Zorrotzako herri mugimenduaren aurpegi ezagunenetakoa zara. Nola eta noiz hasi zen zure konpromisoa?

Gaztetan, istorio hauen inguruan nenbilen. Elizako parrokian *Danok Lagunak* izeneko Gazte Klubean. Bertan, auzoa hobetzeko interesa zuen jende multzo bat zegoen eta bizi-kalitatea, hirigintza, gizarte eta kultura aldetik hobetzeko mugitzen hasi zen. Horrela hasi eta, pixkanaka, gero eta gehiago sartu nintzen.

Nola aldatu da auzoa urte hauetan?

Hirigintza-mailan asko irabazi da, hori delako Auzo Elkarteek lehenengo planteatzen dutena: oinarrizko gaiak, hala nola argiztapena, espaloiak... Aurrera egin ahala, berriz, bestelakoak ere planteatzen dira, kultura, kirola edota aisialdiarekin lotutakoak. Hobeto egon gintezke? Ziurrenik, baina egon garena baino hobeto gaude.

Eta nola aldatu da auzo mugimendua?

Franco hil ondoren, herri mugimendu asko indartu ziren. Auzo-elkarteetako militante askok politika instituzionalera egin zuten salto, erakunde berriek aldaketak ekarriko zituztelakoan. Baina denborarekin ikusi zen erakunde politikoek ez zutela auzo-elkarteen lana ordezkatuko, eta lehengora itzuli behar izan zen.

Gaur egun, erakundeek parte-hartzea legitimatu egiten dute, baina euren agendek markatzen dute erritmoa. Gauza txikiak lortzen dira, baina gai garrantzitsuetarako urte asko behar dira. Bestalde, gizartea gero eta indibidualistagoa da. Jende asko kexatzen da, baina gutxi dira deialdietara joaten direnak. Hala ere, ez dut uste kopurua garrantzitsue-



> **Parte hartzen dudan borroka guztiek gizartea aldatzea eta guztiontzat hobea izango den zerbait lortzea dute helburu**

na denik; talde iraunkor eta konprometitua izatea ezinbestekoa da.

Tartean, asko dira lortu diren aldarrikapenak. Zertaz sentitzen zara bereziki harro?

Azokako parkeak mugarri garbia ezarri zuen. Abereen azoka eta kamioien aparkalekua izatetik auzoko herritarrentzako espazio publiko erabilgarri batera igarotzeak aldaketa nabarmena ekarri zuen. Beste mugarri itzela Jon Urzelai parkean auzolanean egindako lana izan zen; izugarrizko simaurtegia baitzen eremu hura. Baina, oro har, urteetan lortu den guztia: institutua, osasun zentroa, kiroldegia... Eta baita auzoa lagunkoiagoa egiten lagundu duten xehetasun txiki guztiak ere.

Zorrotzako zer arazo daude oraindik konpontzeke, eta zein izan beharko lirateke auzoaren lehentasun nagusiak?

Batez ere, Sader eta Profesaren lekualdatzea eta FEVEren bi trenbide-pasaguneen lurperatzea lortzea. Garraioaren gaia ere garrantzitsua da. Ez gaude gaizki komunikatuta, baina metrorik gabe gaudenez, garraio-enpresek planteatutako ardatz berria kontuan hartuta, ikusi beharko da nola geratzen den eta zein baldintza diren interesgarriak auzoarentzat.



> *Aldarrikapenak jarraitzen du funtsezkoa izaten edozein hobekuntza lortzeko*

Punta Zorrotza ere lehenago edo geroago abiarazi beharko da. Elkartean urte asko daramatzagu aurkeztu dizkiguten plan ezberdinetan auzoari interesatzen zaiona azpimarratzen, proiektu horrek ia-ia auzo berri bat egitea ekarriko baitu. Osasun zentroa handitzea zein Zazpilanda eta erdigunea gehiago kohesionatzea ere garrantzitsua da.

Zure konpromisoa ez da auzo mugimendura mugatzen. Borroka sindikaletan ere parte hartzen duzu, pentsionistenetan, bazterketa sozialaren aurkakoetan, ekologistetan, suberanistetan... Zer dute komunean borroka horiek guztiek?

Gizarte ezberdin baten aldeko borroka bakar gisa ulertzen ditut militantzia guztiak. Batak bestera eramaten duela oso argi daukat. Borroka hauek guztiek gizartea aldatzea eta guztiontzat hobea izango den zerbait lortzea dute helburu.

Nondik ateratzen duzu energia konpromiso maila horri eusteko?

Egoteko beharraren uste sakona dugunean, indarra berez dator eta mugitzera eramaten gaitu. Niretzat funtsezko oinarria gizatasuna edo humanismoa da. Hobetzeko zer edo zer egin behar da, utopia handirik gabe.

Zer eman dizu zuri herri mugimenduak?

Pozgarria da guztion onerako, jendearen bizi-kalitaterako, ekarpena egiten saiatzea. Garaipen txikien poza eta, besterik gabe, eztabaida proposatzea, elkarrizketa lortzea eta mota guztietako jendearekin konektatzea ere eman dit. Hau oso garrantzitsua da lubakien eta bandoen herri honetan. Guztioi eragiten diguten aferetan elkarguneak bilatu behar ditugu, batez ere ia denok elkar ezagutzen dugun auzo edo komunitate batean.

Militantziak maila pertsonalean hainbat konturi uko egitea dakar. Zer kostatu zaizu zuri konpromiso hau?

Buruhausteak. Baina alde onak eta txarrak begiratzen hasten banaiz, azkenean, negatiboa ahaztu eta norberak markatutako helburuez oroitzen naiz. Ugariak izan dira tentsio-uneak, une desatseginak eta etsipenak, baina bizitzako alderdi guztietan bezala.

Hainbeste urtez herri mugimenduaren aurpegi agerikoenetakoa izan ondoren, erreleboak kezkatzen zaitu? Ikusten al duzu gazterik lekukoa hartzeko prest?

Kezkatzen gaitu, bai. Ez bakarrik auzo elkartean, oro har. Badago gazteria lanean eta gauza piloaz arduratzen ari dena, baina errebelde faltaren pertzepzio hori badaukagu. Edozein gauza lortzea asko kostatzen da, eta azkenean jendea desanimatu egiten da. «Zertarako balio digu hemen egoteak, azkenean ez badugu ezer lortuko?» pentsatzera eramaten du horrek. Erosotasuna ere beste arrazoi bat izan daiteke. Askotan entzun behar dugu hemen gaudenok oso ondo egiten dugula; baina jende gehiagoren

“Zorrotza? Bizitzeko munduko lekurik onena”



Zorrotzako txoko gogokoena?
Antzinako Landa, existitzen zenean. Gaur egun, auzotik Kastrexanarako irteera, El Chorrillo izenez ezagututakoa.

Bereziki gogoan duzun mobilizazioa?
Izan zuen intentsitateagatik, Landako Escudero Perez familiarekin izandako gatazkari lotutakoa. Maila pertsonalean arriskutsua izan zen hainbat auzokiderentzat. Elkarbizitzarako inflexio puntu garrantzitsua izan zen.

“Merezi izan du” pentsarazi dizun une bat?
Modu batean edo bestean, lortutako guztia.

Barruan iltzatuta geratu zaizun zerbait?
Sader/Profesaren lekualdatzea eta FEVEren trenbidearen lurperatzea, auzoa erabat hobetuko luketelako.

Zer da Zorrotza zuretzat?
Niretzat, bizitzeko munduko lekurik onena.

artean errazagoa litzateke. Eta sare sozialen itxurakeria ere badago. «Like»a emanda edo «ados nago» sofatik adierazita dena eginda dagoela ematen du, baina hori ez dela nahikoa uste dut.

Nola aldatu da auzo mugimenduaren eta erakundeen arteko harremana? Posible da aurrerapausoak lortzea horien aurrean jarrera aldarrikatzaile eta kritikoa mantendu gabe?
Zerbait ireki da eta gauzatxoak lortzen joan gara, baina hainbeste goraipatu den parte-hartzea paradoxa bat da. Teorian onartzen dute, baina praktikan beste kontu bat da. Prozesu parte-hartzaileak egon badauden arren, benetan garrantzitsuak diren gaietan erakundeek «entzun» egiten dizute, baina haiek nahi dutena egiten jarraitzen dute. Haien agendaren araberakoa da, eta azken hitza haiek baino ez daukate. Hala eta guztiz ere, gauzak lortzeko aldarrikapena funtsezkoa da. Horrela gauzak lortzea kosta egiten bada, hori gabe pentsa gaur egun nola egongo ginatekeen.

Zer Zorrotza aurkitu nahiko zenuke hamar edo hogei urte barru?
Inoiz ez genuke galdu behar auzoa baino herria garen sentimendua. Etorkizunera begira, komunitatearen alde lan egin behar dela uste dut: sare bat sortu, auzoa eta bere alderdi ezberdinak nolabait saretu. Bere garaian horretarako aurkeztu zen Taldeon Koordinakundea, baina gustatuko litzaidake zerbait egonkorragoa izatea.

MESÓN LUNA

Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

AGENDA

Irailak 25 - Urriak 4

ZORROTZAKO JAIAK 2026:
Egitarau osoa topa dezakezu Jai Batzordeko sare sozialetako profiletan

Irailak 26, larunbata

13:00. Azoka plazan.
Umeentzako ikuskizuna:
TXULALAI: Txiki festa.

Irailak 28, igandea

12:30. Azoka plazan.
Bertso saioa:
ANDONI EGAÑA, MADDI ANE TXOPERENA, AITOR ETXEBARRIAZARRAGA eta OIHANA IGUARAN.

Urriak 2, ostirala

18:00. Azoka plazan.
Umeentzako antzerkia:
PATATA TROPIKALA: "Ametsen mundua".

Urriak 10, larunbata

20:30. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: SUSAN SANTOS.
Sarrera: 20/25€

Urriak 21, asteazkena

21:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: LAURA COX.
Sarrera: 30/35€

Urriak 24, larunbata

21:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: BON SCOTTREVIVAL SHOW. Sarrera: 18/22€

Urriak 31, larunbata

21:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
VISIGOTH METAL FEST
Kontzertua: VHÄLDEMAR + SABOTAJE + EVIL SEEDS + MIDJUNGARDS. Sarrera: 20€

Azaroak 7, larunbata

21:00. D8 Sorkuntza Faktorian.
Kontzertua: SEPULNATION Sepulturari tributoa + KAIZOKU BAND Accept-i tributoa. Sarrera: 15€

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, **zm@zorrotzmorrotz.eus** helbidera idatzi.

Etxe arrotz hau

Olatz Mitxelena Larreta.
Susa. 2026. 108 orrialde.



Opari bat behar zuen asteburua sutan, bakardadeak piztia bihurtu du norbait errepide ertzean, umeek trofeoek bezala egiten dute hegan edo ez dira jaiotzen, etxe-aldaketan gorde ez ziren gauzen zerrendak hazten segitzen du; zehatz-mehatz ikasitako errezetak eta errepikatu nahi ez diren bizitzak, katu bat ezustean, eta harrespilaren bueltan animalia-jendea, irauteaz kezkatuta.

Etxekotutakoak maiz eraman ohi du berekin itzal erbestetar bat. Izan jendearena, eguneroko lekuena, oinordetzan jaso diren zeregin, espazio, egiturena. Zer behar da nonbait etxe egiteko? Zer bizi da gure etxeetan gutaz haratago? Zerk egin du huts zarata berrien erruz loa galtzeko?

Gisako galderetan murgiltzen dira Olatz Mitxelenak liburu honetan jaso dituen hamar ipuinak. Arroztasuna beti da abisu bat.

STEADY ROCKETS: "Aireratzea" Balaunka (2026)



Bilboko talde gazte honek lan berria kaleratu du duela gutxi. "Aireratzea" izenburupean 11 abesti aurkituko ditugu, non ska, reggae eta rocksteady doinuak lantzen dituzten. Itxaro abeslariaren ahots ederrak berezibiko xarma ematen die abestiei, eta gainontzeko musikariak ez dira atzean geratzen, izan ere, bikain aritzen dira.

Nabaria da prestaketa lan sakona egin dutela diskoa grabatu aurretik. Grabaketa eta nahasketa Euskal Herritik kanpo burutu dute, Santanderreko A-Lone Ark Muzik Studioetan. Bertako teknikari eta ekoizlea den Roberto Sánchezek eskarmentu handia du esparru honetan, eta soinuaren kalitatean profesionaltasuna ezin hobeto islatzen da.

Abesti guztiak euskaraz idatzi ditu taldeak. Tartean, Errekaldeko auzoarekin duten lotura dela eta, Kepa Junkera musikaria omendu nahi izan dute "Bok Espok" bere kanta ezaguna bertsionatuz. Emaitza itzela da. Uda honetan besteak beste Armintzako Txapel Reggae festibal mitikoan edo Bilboko jaietan aritu dira eta urte amaiera bitartean diska aurkezten jarraituko dute. Galduko duzu?

IBAI BARRIOS

bertso saioa

ZORROTZA jaiak 2026

Irailak 27, *igandea.*

ZORROTZA. Azoka Plazan. *12:30ean*



Andoni Egaña



Maddi Ane Txoperena



Aitor Etxebarriazarraga



Oihana Iguaran

Antolatzaileak: zorrotzako euskal txokoa · zorrotzako jai batzordea

Laguntzailea: ZM ZORROTZ MORROTZ

Babeslea: Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

Bada urtebete Mirentxu Loiartek utzi gintuela, eta haren heriotzaren lehen urteurrenean, Donostiako Zinemaldi betean, atal hau hari eskaini nahi diot omenaldi xume gisa.

Loiarte zinema-zuzendari aitzindaria izan zen, ez bakarrik Euskal Herriko lehen emakume zuzendaria izan zelako, baita euskal zinemagintza modernoaren sortzaileetakoa izan zelako ere. Haren ekarpena, errepresioaren ondorioz urria izan arren, balio handikoa da eta aldarrikapen politiko zein sozialez beteta dago.

1978ko Donostiako Zinemaldian estreinatu zuen bere lehen lana, Irrintzi. Irudi errealak eta performancea uztartzen zituen film laburra frankismo ostean Euskal Herriak sufritzen zuen errepresioaren salaketa gordina zen. Horren ondorioz, espainiar polizia Mirentxu atxilotzen saiatu zen emanaldiaren ostean. Zinemaldiko zuzendariari esker, ordea, atxiloketa saihestu ahal izan zuen.

Bere konpromiso politikoari eutsiz, 1979an sortutako Ikuska proiektuaren parte izan zen beste zinemagile batzuekin batera, trantsizio garaiko Euskal Herriaren memoria kolektiboa sortu eta euskarazko ekoizpenak bultzatzeko helburuarekin. Kalitate handiko 21 dokumental laburrez osatua zegoen eta orduko euskal gizartearen kezkak eta gatazkak ekarri zituen pantailara: langile borrokak, espekulazioa, euskararen zapalkuntza, gazteriaren egoera, landa eremuaren eraldaketa, kooperatibismoa...

Mirentxuk saileko 12. atala zuzendu zuen. 10 minutuko dokumentalean euskal emakumearen egoera salatu eta genero ikuspegia landu zuen. Besteak beste, euskal matriarkatuaren mitoa hautsi, emakumeen bazterketa eta zapalkuntza deitoratu eta gizonen neurrira egindako gizartean emakumeei ahotsa zein merezi zuten ikusgarritasuna eman nahi izan zien. Aldarrikapena argia zen: emakumeen askapenik gabe ez da benetako nazio askapenik izango.

Jazarpen polizialaren ondorioz, dokumentala grabatu eta gutxira erbesteratu behar izan zuen, eta bere ibilbide zinematografikoa eten egin zen. Mende hasieraren bueltan itzuli zen Euskal Herrira, baina oharkabean pasatu zen 2016. urtean Iratxe Fresnedak ahanzturatik erreskatatu eta gure herriaren memorian merezi duen tokia eman zion arte.

Eskerrik asko Mirentxu gure herriaren eta emakumeen askapenaren alde egindako lanagatik!

ALAITZ ALDABALDETREKU



Marrazkia: Elena Irureta


MIRENTXU LOIARTE ESPARTZA.

Iruñea, 1938 – 2025

Lanbidea: ***Zinema zuzendari eta gidoilaria***

Lanak:
- ***Irrintzi*** (1978)
- ***Euskal Emakumeak*** (Ikuska 12, 1981)

Hari buruz gehiago jakiteko:
- ***Irrintziaren oihartzunak*** dokumentala. Iratxe Fresneda, 2016.



TXOKO FEMINISTA

Haurren eskola-etaparen hasiera aldaketa handia da familia guztientzat, baina askotan zaila izaten da lana eta familia-bizitza bateratzea, umeak zaintzeko eta haiekin egoteko denbora antolatzea erronka bihurtzen delako. Gainera, eskola hasteak gastu ekonomiko handia ekartzen du: eskola-materiala, liburuak, arropa, motxila, kirol-ekipamendua, eskolaz kanpoko jarduerak eta beste hainbat gauza ordaindu behar dira. Gastu horiek are handiagoak izan daitezke haur bat baino gehiago dituzten familietan. Horregatik, garrantzitsua da familiei laguntza eta baliabide gehiago eskaintzea. Kontziliazio-neurri malguagoek eta laguntza ekonomikoek gurasoen egunerokoa erraztuko lukete eta, aldi berean, haurren ongizatea bermatzen lagunduko lukete.

IRATZE PÉREZ



Ranero haitza / Karlistako haitza, (804 m.)

Argazkia: wikiloc

MANU COBO

Karrantzako Ranero auzoa kobazulo karstikoengatik eta estalaktita eszentrikoengatik da ezaguna, baina haitzuloen gainean beste altxor bat dau: Ranero haitza gailurra, eskandaluzko ikuspegiekaz.

Ranero auzotik pista bat hartuko dogu Surbias izeneko eremurantz, non tumulu bat bait dau.

Surbiasen, Bizkaiko Itzuliko GR 123gaz (Bizkaiko Bira) bat egingo dogu. Ibilbide handiaren margo zurigorriari jarraituz, Raneroko atakaraino iritsiko gara. Hemen hasten da Ranero haitza gailurrerako sarbidea, orain PR baten arrastoei jarraituz.

Gailurra egin ondoren, atakara itzuli eta GRaren arrastoei jarraituz berriro Pozalaguara itzuliko gara. Handik, errepidetik barrena, Ranerora itzuliko gara.

Nahiko ondo seinaleztatutako eta bide onetatik egiten da ibilbidea. Ranero haitza gailurrean nagusi den kareharriak zailtasun puntu bat gehitzen dautso ibilbideari, baina ez gehiegi. Botak eta makila ona ere laguntzeko komenigarri lur harritsu irregularrean.

LASTER
Elektrizitatea elektronika
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• ATEZAIN AUTOMATIKOA
• ARGIZTAPENA
• SARE INFORMATIKOAK
TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
ZORROTZA KASTREXANA
ERREP. 42. MOD. S8
ZORROTZA 48013

ROCKET TAVERN
Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak...
FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA + KRISTALAK GOI-GAMAkoak
265€
Sustapena indarrean +- 4,00 esferako eta -2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18
ibarretaluxury OPTICA

Adio

Ingurura begiratu eta halaxe ikusten dut jendea, desgogara. Etsipen puntu batekin, ipurterre, deseroso. Gutxi dira libre eta arin dabiltzanak, bizitza aukerez betetako abentura gisa dakusatenak. Aitzitik, estu eta larri ari dira gehienak. Aurreikuspenen eta errealitatearen arteko amildegiak irentsiak asko, ametsek hondoratuta besteak. Gozakaitz dabilela jendea, gozakaitz. Laketu ezinda, ipurdia non kokatu ez dakiela, haratago begiratzeko gai ez dela. Larrienaz kezkatuta garrantzitsuenari erreparatu gabe, kezken antologia oso batek begiak estalita eta barrenak janda. Ilusio txikiei oratzen batzuk, utopia handiei helduz besteak. Galeanoren horizontearena, Walter Benjaminen erara. Ilusioei begiratu bizitzaren oldarraren pean, baina atzeraka bultzatzen gaituela hark ezerezerantz.

Egunen gurpil nekatuan zaila da etenak marraztea. Egunerokotasunak irentsiak baikaude ia beti, denborari neurria hartu gabe. Konturatu gabean kateatzen dira aroak, etapa bat beste bati darraio igarotakoari antzemateke.

ASIER URKIZA

> *Azken lerrootan, eraiki nauenari omen egitea dagokit. Emandakoa itzultzeko garaia da. Ilusio berrien xerka abiatzekoa, zantzu gaiztoen eta profeta ustelen gainetik. Ustekabeko edozein lerroartetan egingo dugu topo, irakurle.*

Etapa berrian jadanik denboratxoa daramagunean baino ez gara pasatakoaz ohartzen. Bukatu egin dela barneratzen. Sistema honek lapurtu digun beste gauzetako bat, denbora. Nola neurtzen da denbora egun? Scroll etengabeak eta ordutara luzatzen diren segundotako bideoek desitxuratu dute berau.

Tonu profetikoak alde batera utzita, denboraren kontzientzia handiagoa izan nahi nukeela darabilt aspaldian. Etenak egin nahi dizkiot denborari, markak. Markatu nahi dut denbora. Garaiak, aroak, etapak eta boladak bereizi nahi ditut. Iragana deritzogun leize zulorantz kuku bat egin, frontala kopetan daramadala. Horretarako, hainbat gauzez askatu eta beste batzuk jantzi nahi ditut. Erantzi arropa zaharrak, erantsi berriak. Lehengoak hobeto ulertzeko, ihes egindako denborari atzemateko, azalez mudatu. Azken lerrootan, eraiki nauenari omen egitea dagokit. Emandakoa itzultzeko garaia da. Ilusio berrien xerka abiatzekoa, zantzu gaiztoen eta profeta ustelen gainetik. Ustekabeko edozein lerroartetan egingo dugu topo, irakurle. Biba Zorrotz-Morrotz eta Zorrotzako animo oneko euskaldun guztiak. Adiorik ez.

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua **zm@zorrotzmorrotz.eus** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!

SALAKETA ARGAZKIA





Beroa ere auzoaren araberakoa da

Klima-aldaketa hemen da. Uda bakoitza aurrekoa baino itogarriagoa dela dirudi, nahiz eta, bitxia bada ere, hiriko eremu guztietan berdin nabaritzen ez den. Auzoetako zenbait lorategik bereziki jasan dituzte beroa eta ureztatze falta. Hona hemen horren erakusgarri diren irudiak, hiriko zenbait gunetara mugatuta dagoela dirudien paisaia.

Eta, hori gutxi balitz bezala, auzoetan ere ez da behin-behineko iturririk jartzen, nahiz eta beroaren eraginpean dauden eremu zabalak egon, inguruan iturririk ez dutenak. Agian udak ere baditu bere auzo kuttunak.









NAROA PEÑA

Zorrotzako jaiak?

Nola bizitzen dituzu? Zer da gehien gustatzen zaizuna?



Eva

Oso gustukoak izan ditut jaiak betidanik, gaztetan batez ere. Kuadrillen jaitsiera eta txosnetako giroa nabarmenduko nituzke.



David

Gozatzeko garaia da. Barrakak eta herri bazkariak dira gehien gustatzen zaidana. Aurten gustuko dudan kontzertu bat ere badago!



Nerea

Lehen gustatzen zitzaidan gaueko giroa apur bat alboratu dut. Orain alabarekin goizeko ekintzez gozatzen dut. Igel-toka txapelketa ere oso gustukoa dut.



Maitane

Umeei zuzendutako ekintzetan egoten naiz batez ere. Herri bazkarietan sortzen den giroa ere oso gustuko dut, baita gauekoa ere.



Jandro

Lasai bizitzen ditut, baina egun-pasak, bazkariak eta parkean dagoen giroa izugarri maite ditut.

ehbildu
ETORKIZUNA DA ORAIN
Esperantzaren nazioa.
etxera
ASKABIDE ZORROTZA
Frai Juan 20 • askabidezorrotza@gmail.com



¡Kasi Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa, ikastetxe publikoetan eta Zorrotzatik irten gabe

CEIP ZAZPILANDA-ZORROZGOITI HLHI
Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
94 442 48 75
zuzendaria@zazpilandaeskola.eus

CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN HLHI
Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
94 442 00 21 • 94 442 00 21
014159aa@hezkuntza.net

i.e.s. ZORROTZA b.h.i
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
94 439 33 34 / 688 861 374
94 439 97 41
015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net



Euskara eroso ikasi eta bizitzeko

Aprende y vive el euskera cómodamente



Maialen Bárcena eta Iñaki Carcavilla AEKko irakaslea eta ikaslea.

EUSKARA-IKASTAROAK · **CURSOS DE EUSKERA**

A1 - A2 - B1 - B2 - C1 ikastaroak

A1 - A2 eta C1 ikastaroak (16-18 urte): prezio bereziak

DIRULAGUNTZAK | **BECAS**

EUSKO JAURLARITZA
Maila egiaztatuz gero
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BILBOKO UDALA
Maila eta asistentzia egiaztatu behar da
Es necesario acreditar nivel y asistencia

Zorrotza AEK euskaltegia
Zalbidea 7, behea | 94 441 49 20 | zorrotza@aek.eus